

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

**Diputatu Nagusiaren Kabinetearen Zuzendaritzaren 3805/2021 Ebazpena, irailaren 17koa, agintzen duena Arabako Foru Aldundiko sailek hainbat erakunde eta elkarterekin izenpetutako lankidetzak hitzarmenen laburpenak argitaratzeko**

Diputatu Nagusiaren Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuari lankidetzak hitzarmenen hainbat kopia bidali zaizkio, Arabako Foru Aldundiko sailek behar bezala sinatuta.

Kontuan hartu da horretarako zer xedatzen duten Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulua eta ondorengoak; Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 79. artikulua, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek.

Lehen aipatutako lege aginduak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzkoak, 102. artikulua eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren apartatua xedatutakoaren arabera dagozkidan eskumenak egikaritzuz, ondoko hau

#### EBAZTEN DUT

Agintzea ALHAOn argitaratu daitezela lankidetzak hitzarmen hauek:

#### **IZENPETZE EGUNA: 2021eko maiatzaren 31**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Ramiro González Vicente, Arabako diputatu nagusia.

Bestetik: Jon Urresti García, Vital Fundazioaren lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: "Lanabes egitasmoa" proiektua garatzea, zeinaren bidez kultura eta kirol ondare historikoari eusten baitzaio, eta Arabako Lurralde Historikoan gizarte, laguntza, sustapen eta enplegu programetan parte hartzea.

Finantzaketa: Vital Fundazioak 15.000,00 euro jarriko ditu.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 2a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Ramiro González Vicente, Arabako diputatu nagusia.

Bestetik: Juan Ugarte Aguirrezabal, SEA Empresas Alavesas-en zuzendari nagusia.

Hitzarmenaren xedea: Lanabes egitasmoko ekintzak garatu eta koordinatzea, enpresa sektoreak hizkuntza kudeaketan parte har dezan sustatzeko, berrikuntza eta aukera bektore gisa.

Finantzaketa:

Arabako Foru Aldundia: 2021eko aurrekontua finantzatuko du, 20.000,00 euroekin.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: Alderdi sinatzaileek hala nahi badute. Gehienezko epea: indarraldiari beste lau urte gehitu ahalko zaizkio.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 15a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundekeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Isabel Pérez-Pons, Nuevo Futuro de Álava elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Familia egoera egokirik ez duten haurrei egoitza arretako zerbitzuak eskaintzea.

Finantzaketa: 1.839.890,97 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 28a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Eduardo Aguinaco López de Suso, Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Saileko foru diputatua.

Bestetik: Joxe Urrestarazu Tellería, Nafarroako eta Euskadiko Erkidegoetako Behi eta Ardi Esnearen Elkarteko (ALVO) lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak ALVO elkarteari emandako dirulaguntza bideratzea, Arabako ustiattegietako esne gordinaren higiene eta osasun kalitatea kontrolatzeko egindako jarduerak finantzatzeko.

Hitzarmenaren zenbatekoa: 2021eko ekitaldian ezin izango da 8.400,00 euro baino handiagoa izan.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 29a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Emilio Sola Ballojera, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundekeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bestetik: Ana Osaba Saenz, USOA Tutoretza Fundazioko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza neurriak hartzea (kuradoretza eta defentsa judiziala).

Finantzaketa: 326.450,00 euro.

Indarraldia: 2021eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: 4 urtez luza daiteke.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2021eko uztailaren 30a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Julen Elgeta Guenetxea, HETEL Euskadiko Lanbide Heziketako Ikastetxeen Elkar-  
teko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustape-  
naren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta HETEL elkartearen arteko harremanak formali-  
zatea, entitate bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta beren helburuak lortzera bideratuta  
dauden ekintzak optimizatzeko.

Aldeen ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, HETELi 50.000  
euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2021eko ekitaldirako gastu aurrekon-  
tuaren kontura.

Indarraldia: 2021eko martxoaren 26ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

#### **IZENPETZE EGUNA: 2021eko abuztuaren 6a**

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Josean Galera Carrillo, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saileko  
foru diputatua.

Bestetik: Igor Medina Isasa, Barrundiako Udaleko alkate-lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Uribarri Ganboako urtegiko Ibilbide Berdea birmoldatzeko eta egokitze-  
ko lurak trukatea eta erostea, Urizarko penintsularen parean.

Indarraldia: mugagabea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko irailaren 17a

*Kabinete eta Komunikazio zuzendaria*  
**ELENA FERREIRA SEBASTIÁN**